

EUSKERA FITXA

1 Lotu zatiak esaldiak osatzeko.

- Itziar eta biok goizero •
- Ni, gaur, •
- Alazne, iaz, •
- Zure lagunak eta zu •
- Itziar eta biok txikitan •
- Joan den udan zu •
- lagun handiak ginen.
- sarritan gaixotu zen.
- goizetik jaiki naiz, garaiz ibiltzeko.
- elkarrekin joaten gara eskolara.
- ez zarete oso berritsuak.
- Alemaniarra joan zinen oporretan.

2 Bete hutsuneak *ts*, *tx* edo *tz* erabiliz.

- ____istua
- o ____oa
- ____irula
- hondar ____a
- arrau ____a
- perre ____ikoa
- ____indata
- gal ____ak

3 Osatu testua, aditzak idatziz.

Oporretan, nora?

Zenbat aldatu diren gure oporrak! Ni txikia nintzenean, familiako kide guztiak Zarautzera joaten _____ udan. Aita eta ama autoz joaten _____, udarako maleta guztiekin. Amona, Leire eta hirurok, ordea, trenez joaten _____ Zarautzera, ez zegoelako autoan guztiontzako tokirik. Nik nahiago nuen trenez joan, izan ere, lehen autoan zorabiatu egiten _____.

Gaur egun daukagun autoa berria _____, eta ni jada ez _____ zorabiatzen. Orain beste toki askotara ere joaten _____; gainera, denak autoan, handiagoa delako. Iaz, adibidez, Galizian egon _____. Hori bai, Galizia polita bada ere, zarautzarrak jatorragoak _____!

